

IKT-EN ERABILERAN JARDUNBIDE EGOKIAK SUSTATZEKO PROGRAMA KUDEATZEKO, ANTOLATZEKO ETA EGIKARITZEKO BEHARREZKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN PLEGUA.

1.- SARRERA


IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologia) erabileran jardunbide egokiak sustatzeko programa (hemendik aurrera, IKT JJEE), 2009. eta 2010. urteetan euskal turismoaren sektoreko IKTen erabilerari buruzko azterlanetik eratorritako jardunetako bat da.

(Emailtzak: http://www.basquetour.net/galeria_archivos.aspx?idmp=29&language=4)

Euskal Turismoaren 2010-2013ko Lehiakortasun eta Berrikuntza Planaren barruan kokatzen da IKT JJEE Programa, zehazkiago "Turismo-industriaren berrikuntza eta garapen teknologikoa" izeneko 3. ardatzean, "3.3 Euskal turismo-industriaren IKTen erabileraren sustapena balio-katearen begi guztietan" izeneko jardun-ildoan.

IKT JJEE programaren helburua euskal turismoaren sektoreko enpresetan informazio- eta komunikazio-teknologia sustatzea da, eta, ildo horretan, sektoreko profesional guztiak sensibilizatzea eta horiei euskarri integrala ematea (eskuratzea, erabilera, prestakuntza, laguntzak).

IKT JJEE programaren metodologia eta eredua 4 arlotan (sistemak eta teknologia, negozioa eta prozesuak, produktu eta zerbitzuak, eta segurtasuna) eta 5 mailatan (1. maila: oinarritzakoa; 2. maila: konektibitatea; 3. maila: ikusgaitasuna; 4. maila: integrazioa; 5. maila: elkarreragintasuna) oinarritzen da, eta horietan guztietan IKTen erabileran bete beharreko zenbait jardunbide egoki zehaztu dira.



IKT JJEE programa lantzeko eta abiarazteko prozesu osoan (pilotua 2011an, eta abiaraztea 2012an), sektorearen berezko ezaugarriak eta atzemandako premiak hartu dira kontuan, eskuratzeari, erabilerari eta prestakuntzari lotutako gabeziak estaltzeaz gain, sektoreari etengabeko hobekuntza-prozesu batean sartzen errazteko, uneen uneko testuinguruaren eta premien arabera bilakatuko dena.

IKT JJEE programak ongi bereizitako bi talde hauek ditu jomugan:

- Eskualdeko turismo-lankidetzako erakundeetako (hemendik aurrera, lankidetzarakundeak) profesionalak (teknikari kudeatzailea eta lehiakortasun-teknikaria), lankidetzarakundeei eskumenak eman nahi dizkietenak BASQUETOURREN eta euskal turismoaren sektorearen arteko zubi moduan jardun dezaten.
- Euskal turismoaren sektoreko enpresak, helmugen arabera taldekatuta, IKTen ahalik eta erabilerarik onena lortu nahi dutena, enpresa bakoitzaren premien arabera. 10 enpresaburuk talde bat osatzen dute, eta urtean behin sortzen da.

Oro har, IKT JJEE programa batean honako fase hauek bereizten dira: hasteko, IKT JJEE programari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-jardunaldia egiten da; jarraian, barneko autodiagnostiko-prozesua dator; ondoren, banako diagnostikoa (kanpokoa); jarraian, diagnostikotik eratorritako hobekuntza-plan pertsonalizatuan jasota egonik, plan horretan ezarritako helburuak betetzea ahalbidetu behar duten ekintza edo zereginak egikaritzeko aldia dator; azkenean, helburu horien azken ebaluazioa egiten da.

IKT JEE programa honako hauez osatzen da:

- Teknologi-arloko jardunbide egokien eskuliburua

http://www.basquetour.net/archivos/descargas/Manual de BBPP Tecnologicas EU 2011_09_20_08_54_43.pdf

- IKTen hornitzaileen katalogo bat, sektore turistikoan eskarmentua izaki sektore horretan zerbitzuak eskaintzeko borondatea ageri duten IKTen hornitzaile guztiak biltzen dituen.


http://basquetour.tic-pyme.es/docs/Basquetour_Catalogo_Proveedores_TIC_EU.pdf

- IKTak eskuratzeko laguntzak.

2012ko laguntza-deialdia:

http://www.industria.ejgv.euskadi.net/r44-ed001/eu/contenidos/ayuda_subvencion/met_2012/eu_met_20/eu_arch.html

- Jardunbide egoki jakin batzuei lotutako prestakuntza-tailerren katalogoa.



BASQUETOUR Turismoaren Euskal Agentzia (hemendik aurrera, BASQUETOUR) arduratzen da lankidetzak-erakundearen sentsibilizazioaz, lehiakortasuna kudeatzeko foroan bitartez. 2013. urterako enpresa kopurua zehaztu da, eta guztira 264 enpresa izango dira.

Ezinbestekoa da IKT JJEE programa oso-osorik ele bitan abiaraztea, euskaraz eta gaztelaniaz, helmugaren eta establezimenduaren aukeran.

2.- LEHIAKETAREN XEDEA

Lehiaketa honen bitartez, euskal turismoaren sektoreko enpresentzako 2013rako (2014ra luza daiteke) IKT JJEE programa kudeatzeko eta egikaritzeko beharrezko zerbitzuak kontratatu nahi dira, eta programa horren bidez jardunbide egokiak abiarazi nahi dira IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologia) erabileran, baita, alor horretan, etengabeko hobekuntza-prozesua sustatu ere.

3.- PROIEKTUAREN GARAPENA

Kontratazio honen eraginpeko zerbitzuak behar bezala aurkezteko, honako informazio hau hartu behar da kontuan:

I. ERANSKINA: Eskema funtzional orokorra. IKT JJEE programaren eskema orokorra, programaren funtzionamendu integrala (fluxuak) islatzen duena.

II. ERANSKINA: IKT JJEE programaren laburpen betearazlea.

III. ERANSKINA. IKT JJEE programaren prestakuntza-tailer espezifikoaren egiturazko eta denborazko eskema.

IV. ERANSKINA: Lanpostuaren profilak.

IKT JJEE programa bere osotasunean ezagutzeko garrantzizko informazio guztia jaso da dokumentazio honetan.

Esleipenaren ostean, eta kontratazio honen eraginpeko zerbitzuak behar bezala emateko, honako hauek ere jarriko dira esleipendunaren eskura:

- IKT JJEE programaren prozedurei buruzko eskuliburuak, prozesu, formatu, eranskin, txantiloak eta jarraibidez hornituak.
- Prestakuntza-tailerren curriculum-edukia.

3.1 EGIN BEHARREKO LANAK:

- 1) IKT JJEE programaren ezarpenaren jarraipena egiteko_BASQUETOURREKIN egin beharreko bilerak planifikatzea, egikaritzea eta horien jarraipena egitea, dagokion kronograma barne; eta lankidetzak-erakunde bakoitzarekiko hasierako bilera planifikatzea, egikaritzea eta horren jarraipena egitea, helmuga bakoitzean IKT JJEE programa abiarazteko urteko plangintza egiteko.
- 2) Hasierako prestakuntzako urteko ikastaroa (IKT JJEE programaren barneko prestakuntza agente berrientzat) eta ondorengo urteko birziklatze-jardunaldiak planifikatzea. Lankidetzak-erakundeekiko hasierako prestakuntzako urteko ikastaroa abenduan egingo da, eta, ondoren, urteko birziklatze-jardunaldia egingo da.

Ikus I. ERANSKINA; II. ERANSKINA.


- 3) IKT JJEE programari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-jardunaldiak planifikatzea eta koordinatzea, antolatze dagokion kronograma barne. Aurreikuspenen arabera, IKT JJEE programari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-jardunaldiak urtarilean eta otsailean egingo dira, betiere hasierako prestakuntzako eta birziklatzeko urteko ikastaroa amaitzean

OHARRA: BASQUETOURREK egikaritzen ditu, helmugaren arabera, lankidetzak-erakundeak (eta enpresaburuak) IKT JJEE programaren inguruan sentsibilizatzeko eta informatzeko jardunaldiak, eta bakar-bakarrik IKT JJEE programan lehen aldiz parte hartzen duten talde sortu berrientzat.

- 4) Autodiagnostikoen bidalketa eta bilketa, diagnostiko-bisitaldiak, prestakuntza-tailerrak (betiere diagnostiko-bisitaldiaren ostean) eta ebaluazio-bisitaldiak planifikatzea eta koordinatzea, lankidetzak-erakundeekin koordinatuta, horiek antolatze eta egikaritzeko dagokion kronograma barne. Honako egutegi hau aurreikusi da, betiere helmugako premien arabera aldatu egin daitekeela aintzat hartuta:

1. hilabetea (urtarrila/otsaila): Autodiagnostikoa + diagnostikoa
 2. hilabetea (martxoa/apirila): Tailerra(k)
 3. hilabetea (apirila/maiatza): Jarraipeneko 1. bisitaldia + tailerra(k)
 4. hilabetea (maiatza/ekaina): Jarraipeneko 2. bisitaldia
- Uztailean eta abuztuan, jardunak ez
5. hilabetea (ekaina/iraila): Jarraipeneko 3. bisitaldia

6. hilabetea (iraila/urria): Ebaluazio-bisitaldia



Egutegia gutxi gorabeherakoa da, lankidetza-erakundeak eta enpresaburuek ezartzen dutelako helmuga bakoitzaren erritmoa. Alabaina, guztira 15 helmuga aurreikusi direla eta denboran zenbait zeregin meta litezkeela aintzat hartuta, plangintza zeharo koordinatu behar da, talde elebidun batekin (euskara eta gaztelania), IKT JJEE programaren gutxienez kudeatzaile bat, eta, ahal dela, 15 diagnostikatzailer/prestatzaile/ebaluatzaile (gutxienez 8 izango dira, betiere) bilduko dituen, koordinatzaile batek (IKT JJEE programaren kudeatzailea) gainbegiratuta.

Talde kide kopurua 8tik 15era bitarte bada, esleipendunak hori jasoko du lan-planean (ikus 4.4 puntua), eta aurreikusitako egutegian jasotako egunak bete egiten direla bermatuko du.

Ikus IV. Eranskina.

Pertsona batek diagnostikatzailer eta/edo prestatzaile eta/edo ebaluatzaile gisa jardun dezake aldi berean, betiere pertsona horrek enpresa parte-hartzaile bera diagnostikatzen eta ebaluatzen ez badu, IKT JJEE programaren urteko abiaraztearen esparruan.

5) Lankidetza-erakundeekin koordinatzea, turismo-mahaletan aurkeztu beharreko dokumentazioa prestatzeko:

- 6.-7. hilabetea (iraila/urria/azaroa): Turismo-mahaiak
- 6) Lankidetza-erakundeekin eta BASQUETOURREKIN koordinatzea, eta IKT JJEE programa emateko ekitaldian aurkeztu beharreko dokumentazioa prestatzea:
- 7./8. hilabetea (azaroa/abendua): Egiaztagiria ematea (Diploma-formatua)
- 7) Hasierako prestakuntzako urteko ikastaroa (IKT JJEE programaren barneko prestakuntza agente berrientzat) eta ondorengo urteko birziklatze-jardunaldiak egikaritzea.
- IKT JJEE programari buruzko hasierako prestakuntzako urteko ikastaroa egitea IKT JJEE programan lehen aldiz parte hartzen duten langileentzat, nola lankidetza-erakundeetako langileentzat (2013rako 5 helmuga/ lankidetza-erakunde berri zehaztu dira, eta litekeena da 2012an parte hartu duen lankidetza-erakunderen batek 2013rako langile berriak prestatzeko premia edukitzea), hala diagnostikatzailerik, prestatzaile eta ebaluatzaileentzat, programaren curriculum-edukian ezarritako denborak eta edukia errespetatuz (ikus II. ERANSKINA). Eta 2012ko IKT JJEE programan dagoeneko parte hartu duten langileak (lankidetza-erakundeetako langileak, diagnostikatzailerik, prestatzaileak eta ebaluatzaileak) birziklatzeko urteko jardunaldia prestatzea eta egitea.
 - Esleipendunak instalazioa (eta dagozkion kafe-zerbitzuak) eskainiko du eta prestatzaileak jarriko ditu, eta, hori ez ezik, beharrezko materiala (boligrafoak, koadernoak eta material didaktiko espezifikoak) bidaltzeaz eta zaintzeaz ere arduratuko da. BASQUETOURREK jarriko du formatu elektronikoko material didaktiko espezifikoak.
 - Prestatzaileak arduratuko dira bertaratze-orriak (sinatuta eta NANaren zenbakia adierazita) eta gogobetetze-inkestak biltzeaz. Halaber, esleipendunak ikastaro(ar)en deialdiko, izen-emateko eta antolaketako prozesu osoa kudeatuko du. Horretarako, lankidetza-erakundeetako kontaktuak ahalbidetuko dira.
 - Esleipendunak bere gain hartuko du IKT JJEE programaren hasierako prestakuntzako prozesua eta birziklatze-prestakuntzako prozesua kudeatzea, IKT JJEE programan ezarritako arauak jarraituz eta adierazitako zereginak betez, eta haren esku utzitako tresnak eta materiala erabiliz.
 - Esleipendunak prestatzaile(ar)en joan-etorrien eta dieten ardura hartuko du.
- 8) Diagnostiko-bisitaldiak egikaritzea:

- Lankidetza-erakundeko langileen laguntzarekin enpresek egindako autodiagnostikoak aztertzea.
- Banako (enpresa bakoitzeko) diagnostiko-bisitaldiak egitea, behin dagozkion autodiagnostikoak aztertu ondoren.
- Esleipendunak bere gain hartuko du diagnostiko-prozesua egikaritzea, IKT JJEE programan ezarritako araei jarraiki eta adierazitako zereginak betez, eta haren esku utzitako tresnak eta materiala erabiliz. Ikus II. eranskina.
- Banako diagnostiko-bisitaldian bertan, diagnostikatzailleak hobekuntza-plan pertsonalizatua idatziko du, eta enpresaburuari, lankidetza-erakundeko lehiakortasun-teknikariari (bisitaldian diagnostikatzailleari lagunduko dio) eta BASQUETOURRI emango die.
- Esleipendunak diagnostikatzaillearen joan-etorrien eta dieten ardura hartuko du.
- Kontuan hartzekoa da kobrantza egikaritutako diagnostiko-bisitaldi bakoitzeko gauzatuko dela.

9) Lankidetza-erakundeetako lehiakortasun-teknikarientzako laguntza telematikoa egikaritzea.

10) Ebaluazio-bisitaldiak egikaritzea:


- Banako (enpresa bakoitzeko) ebaluazio-bisitaldiak egitea, behin hobekuntza-plan pertsonalizatua eta dagozkion jarraipen-bisitaldien aktak aztertu ondoren.
- Ebaluazio-bisitaldian bertan, ebaluatzaileak behin-behineko ebaluazio-txostena idatziko du, eta enpresaburuari, ebaluazio-bisitaldian lagunduko dion lankidetza-erakundeko lehiakortasun-teknikariari eta BASQUETOURRI emango die.
- Esleipendunak bere gain hartuko du ebaluazio-prozesuan jardutea, IKT JJEE programan ezarritako araei jarraiki eta adierazitako zereginak betez (hala nola turismo-mahaiak aurkeztu beharreko azken ebaluazio-txostena idaztea, baliozkotzea eta aurkeztea, atzemandako eta alde zurreko behin-behineko ebaluazio-txostenean jasotako desbideratzeak aztertu eta zuzentzeko prozesua itxi eta baliozkotu ondoren), haren esku utzitako materiala eta tresnak erabiliz. Ikus II. eranskina.
- Esleipendunak ebaluatzailearen joan-etorrien eta dieten ardura hartuko du.

- Kontuan hartzekoa da kobranta egikaritutako ebaluazio-bisitaldi bakoitzeko gauzatuko dela.

11) Prestakuntza-tailerrak egikaritzea:

- IKT JEE programaren enpresaburuentzako eta dagokion lankidetzaren erakundeko langileentzako prestakuntza espezifikoaren tailerrak egikaritzea, programaren curriculum-erakundearen ezarritako denborak eta edukia errespetatuz (ikus III. ERANSKINA).

Gehienez 40 prestakuntza-tailer egingo direla uste da, Euskal Autonomia Erkidegoan barrena banatuak.



- Esleipendunak, BASQUETOURREK eta/edo helmugak ahalbidetuko du instalazioa, kasuaren arabera, eta esleipenduna prestatzaileaz, eta prestatzailearen joan-etorri eta dietez arduratuko da, baita tailer bakoitzerako beharrezko materiala (boligrafoak, koadernoak eta material didaktiko espezifikoak) bidaltzeaz eta zaintzeaz ere. BASQUETOURREK ahalbidetuko du formatu elektronikoko material didaktiko espezifikoak, eta, esleipendunak, berriz, behar adina kopia inprimatuko ditu.

OHARRA: Prestatzaileak aldeztu aurretik esperientziarik ez badu dagokion prestakuntza-tailerra emateari dagokionez, esleipendunak haren ezagutza espezifikoak eta gaitasun pedagogikoa egiaztatuko ditu, barneko proba-saioan.

- Prestatzailea bertaratze-orriak (sinatuta eta NANaren zenbakia adierazita) eta dagozkion gogobetetze-inkestak bildu behar ditu, IKT JJEE programan ezarritako arauetara jarraiki.
Lankidetzaren erakundeak, berriz, bere eskualdeko enpresak tailerrera deitzeko eta izen-emateko prozesua egikaritzeko du.
- Esleipendunak bere gain hartuko du IKT JJEE programaren prestakuntza espezifikoaren prozesua kudeatzea, IKT JJEE programan ezarritako arauetara jarraituz eta adierazitako zereginak betetz, eta haren esku utzitako tresnak eta materiala erabiliz.
- Kontuan hartzekoa da kobrantza egikaritutako prestakuntza-tailer bakoitzeko gauzatuko dela.

12) IKT JJEE programa kudeatzea.

Esleipenduna arduratuko da BASQUETOURREK diseinatu eta garatutako IKT JJEE programa kudeatu eta egikaritzeaz, baita prozesuan (transferentzia, antolatzea eta biltegiratzea) sortutako informazio guztia kudeatzeaz ere, informazioa berraztertu eta zuzendu ondoren. Gainera, programan parte hartzen duten helmugei dagokienez berritasunik edo gertaerarik izanez gero (turismo-enpresa parte-hartzaileen baja; bisitaldiak bertan behera uztea, aldeak aurretik ohartarazi gabe; agendak aldatzea eta abar), horiek erregistratuko ditu, eta BASQUETOURRI emango dio horien berri.

Besteak beste, esleipendunak lankidetzaren erakundeetara lagunduko die plataforman (GoogleDocs eta GoogleCalendar aplikazioak) IKT JJEE programaren faseak bete ditzaten, eta betetze hori egiaztatuko du etengabe; gainera, laguntza telematikoa iraunkorra eskainiko die lankidetzaren erakunde horietara guztietara, programan agertzen zaizkien zailtasunak argitzea.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, litekeena da aplikazioak plataforma integral bihurtzea. (Hobetzeko iradokizunak onartzen dira: lehiaketa honetan aurrekontua integratu duten proposamenak).

Gainera, esleipendunak hileko emaitzen txostenak bidali beharko dizkio BASQUETOURRI, eta IKT JJEE programaren aurrerapenari lotutako euskarri-dokumentuen sorkuntza bultzatuko du, gainerako foro eta/edo bileretan erabili ahal izateko.

13) Azken txostena lantzea

- IKT JJEE programan ezarritako arauen aplikazio zuzenaren jarraipen zehatza, aplikazio horren osoko abiaraztean zehar, laginketa-bisitaldiek indartuta, IKT JJEE programan

izaten diren prozesuen funtzionamendua bertatik bertara balioesteko. Bisitaldi horiek ez dira bertaratuekin planifikatuko, prozesuaren jardueraren ohiko funtzionamenduan ez eragiteko. Zehazki, laginketa-bisitaldiak honako hauen esparruan egingo dira:

- Diagnostiko-bisitaldiak
- Prestakuntza-tailerrak
- Jarraipen-bisitaldiak
- Ebaluazio-bisitaldiak

IKT JJEE programaren kudeatzaileak egikarituko ditu laginketa-bisitaldiak.

Jarraipen-bisitaldiei dagokienez, gutxienez laginketa-bisitaldi bat ezarri da helmuga parte-hartzaile bakoitzeko.

- Urtean azken txosten bat idaztea IKT JJEE programaren emaitza nagusiekin, helmugen (eskualdeak)/lurraldearen arabera dagokien banaketari jarraiki. Txosten horretan jasoko dira, halaber, hurrengo urtean programa abiarazteko aurrera eraman beharko liratekeen hobekuntzak edo aldaketa metodologikoak, hurrengo urteko prestakuntza-ikastaroaren edukian (IKT JJEE programaren barne-prestakuntza) zein urteko birziklatze-jardunaldien edukian bilduko direnak. Jardunaldi horietan, IKT JJEE programaren eskakizunak eta prozedurak argituko dira, helmugei, diagnostikatzaleei, prestatzaleei eta ebaluatzaileei dagokienez. Premia atzematen bada, zenbait hobekuntza bildu eta heda litezke berehala, BASQUETOURREK alde aurreko baimena eman ondoren, programa abiarazteko aldiaren barruan.
- Gainera, IKT JJEE programaren eragina (enpresaburuak/lankidetzak-erakundeak) ere jaso eta aztertuko da, oro har IKT JJEE programaren gogobetetze-inkestaren bitartez, eta, bereziki, helmugako lankidetzak-erakundeetako lehiakortasun-teknikariekiko eta enpresaburuekiko zuzeneko harremanaren bitartez (diagnostiko eta ebaluazio-bisitaldiak).

14) IKT JJEE programaren tresnak eguneratzea

Proiektuaren amaieran, eta IKT JJEE programa itxi aurretik, esleipendunak IKT JJEE programaren tresna guztiak eguneratuko ditu, programaren urteko abiaraztean atzemandako eta erregistratutako hobekuntzak txertatuz.

15) IKTen hornitzaileen katalogoa formatu elkarreragilean garatzea

Proiektuan zehar, egungo IKTen erabiltzaileen egungo katalogoa formatu elkarreragilean garatu behar da.

Behar-beharrezkoa da garapen berria egungo katalogoaren eremuei lotzea (ikus http://basquetour.tic-pyme.es/docs/Basquetour_Catalogo_Proveedores_TIC_EU.pdf).

Hornitzaileen katalogo berriak, egungo katalogoan baliozkotutako eta kargatutako informazio guztia bildu behar du.

Karga berrietarako, sarbide-interfaze berria beharko da, egungoaren antzekoa (ikus <http://basquetour.tic-pyme.es/eu/index.html>), eta bertatik datuak katalogo berrira automatikoki bidaliko dira, betiere hirugarren batek aldeztu aurretik datuak baliozkotu baditu.

2013an izen-emate berrietarako beste deialdi bat egingo da, eta katalogoa eguneratuko da.

Behar-beharrezkoa da IKTen hornitzaileen katalogo elkarreragilea oso-osorik (interfazea eta edukiak) ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) egitea, eta izena eman behar duen orori hizkuntza aukeratzeko aukera eman behar zaio, hizkuntza osagarria itzultzeko ardura (euskaratik gaztelaniara, gaztelaniatik euskarara) enpresa esleipendunarena izango dela.

4.- ESKAINTZAREN EGITURA

Proposamenak aurkeztuko dira Baldintza berezien pleguaren Azaleko 25.6 puntuan agerturiko eskemari jarraiki.

5.- GAINBEGIRATZEA ETA KONTROLA

BASQUETOURRI dagokio lanak etengabe eta zuzenean ikuskatu eta gainbegiratzea. Horretarako, azken esleipendunak lanaren prozesu edo fase ororen azterketa ahalbidetuko du. Esleipendunak azterlanaren jarraipena egiteko bileren egutegia finkatu beharko du.

Turismoaren Euskal Agentziak esleipendunari lagunduko dio, eskura duen informazioa eskainiz eta besteren informazio-iturrietarako sarbidea ahalbidetuz.

Lanak BASQUETOURREKO ordezkari baten zuzendaritzapean garatuko dira, eta ordezkari hori koordinatzailea eta gainbegiratzailea izango da. Era berean, esleitutako proposamenaren gaineko edozein aldaketa egiteko BASQUETOURREN onespena beharko da; BASQUETOURREK lanaren jarraibideetan aldaketak egin ahal izango ditu, noiznahi.

Enpresa esleipendunak proiektuburu bat izendatuko du proposatutako lan-taldearen zereginak koordinatzeko. Esleipendunak hasierako eskaintzan proposatutako kideek osatuko dute lanak egikaritzeko lan-taldea. Taldean edozein aldaketa egiteko, ordezkaren trebakuntza teknikoa berdina edo hobe izango da ordeztuaren trebakuntzaren aldean, eta BASQUETOURREK onartu beharko du aldaketa.

6.- LANAREN JABETZA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Txostenak, txostenetan bildutako datuak eta txostenen ondoriozko datuak BASQUETOURRENAK dira, ez besterenak.

Era berean, datu horiek konfidentzialak izango dira eta ezin izango dira argitaratu —osorik edo zatika—, ezta beste edozein modutan erabili ere, BASQUETOURREK aldeztu aurretik eta esanbidez idatzitako baimenik ematen ez badu.

Inolaz ere, esleipendunak ezin izango du IKT JJEE programari buruzko adierazpen publikorik egin, BASQUETOURREK aldeztu aurretik eta esanbidez baimenik ematen ez badiu.

7.- AURREIKUSPEN EKONOMIKOA

2013. urtean, laguntza teknikoaren kostuak ezin izango du Baldintza Bereziak Pleguko Azalaren 3.puntuan adierazitakoa gainditu. 2014.urterako luzapenik balego, azken prezioak urte hortarako onartutako establezimenduen arabera aguneratuko litzateke, zerbitzu bakoitzarentzako esleipedunak finkatutako banakako prezioa aldatu gabe eta Baldintza Bereziak Pleguko Azalaren 3.puntuan adierazitako balio estimatua gainditu gabe.

Hasieran behintzat, beheko muga gehieneko lizitazio-aurrekontuaren azpitik ehuneko hogeita bost puntutik behera duten eskaintza ekonomikoak ausarkerian erori direla ebatziko da, eta, hortaz, eskaintza horiek bertan behera uzteko aukera izango da.

Bilbon, 2012ko irailaren 24a.

Ana Izaguirre Zabala

Zuzendari nagusia

ERANSKINA

BASQUETOUR-TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA, S.A.
Urkijo zumarkalea, 36 zk., 5. solairua
48011-Bilbo

Jaun/andre agurgarriak:

BASQUETOUR-TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA, S.A.k ("**Basquetour**") sustatutako **IKT-EN ERABILERAN JARDUNBIDE EGOKIAK SUSTATZEKO PROGRAMA KUDEATZEKO, ANTOLATZEKO ETA EGIKARITZEKO BEHARREZKO ZERBITZUAK** kontratatze prozeduraren markoan eta kontratazio horri buruzko baldintza partikularren pleguan aurreikusitakoari jarraiki, idazki honekin jakinarazten dugu dokumentazio hau jaso dugula: "I. Eranskina – Esquema funcional general", "Eranskina II – Resumen Ejecutivo Programa BBPP TIC ", "Eranskina III – Talleres de Formación" y "Eranskina IV – Perfiles de Puesto" (aurrerantzean, "**Dokumentazioa**").

Horren harian, idazki honen bidez jakinarazten dizkizuegu ekintza konpromiso hauek hartu ditugula:

1. Isilpeko informazioa.- Isilpeko informazioa izango da Dokumentazioan bilduta ageri den informazio oro. Era berean isilpeko informazioa izango da Dokumentazio horretatik abiatuta guk prestatutako edozein analisi, bilduma, ikerketa, laburpen, erauzkin edo dokumentu.

2.- Erabilpenari eta isilpekotasunari buruzko betebeharrak. Bai guk eta bai gure administratzaile, zuzendaritza-kargu, exekutibo eta langileek (aurrerantzean "**Langileak**") konpromisoa hartzen dugu isilpeko informazio hori ez erabiltzeko Prozedurarekin zerikusi zuzena ez duten zereginetarako.

Halaber, bai guk eta bai gure langileek ere konpromisoa hartzen dugu isilpeko informazio hori denbora guztian informazio sekretu eta isilpeko bezala erabiltzeko eta mantentzeko; horregatik, ez diogu inori ezagutaraziko ez helaraziko, ez zuzenean ez eta hirugarrenen bitartez, Basquetour-ek aldeztu aurretik idatziz baimena ematen ez badigu. Ondorio horietarako, ulertuko da isilpeko informazioa lapurtu, desbideratu edo galtzeko arriskua gure gain hartzen dugula eta, beraz, arrazoi horietakoren batengatik isilpeko informazioa hirugarren batzuen eskutara iristen bada, guri egotzi beharreko negligentzia izango da.

Era berean, ahalik eta gehien mugatuko dugu isilpeko informaziora sarbidea izango duten langileen kopurua, ahal ditugun neurri guztiak ezarriz idazki honetan hartzen ditugun konpromisoak bete direla bermatzeko. Halere, kasu eta egoera guztietan gu izango gara erantzule, baldin idazki honetan jasotako betebeharretakoren bat betetzen ez bada, are ez-betetze hori gure langileren baten edo batzuen errua bada ere.

3.- Jabetza eskusiboa.- Aitortzen dugu isilpeko informazioa Basquetour-en jabetza eskusiboa dela. Dokumentazioa entregatzeak ez du esan nahi jabetza intelektualeko edo bestelako eskubideak ustiatzeko inolako lizentziarik ematen denik, eta zuek ere ez zaituzte behartzen kontratu bat sinatzera ezein gairi buruz. Zehazki, baina izaera mugatzailerik gabe, ezingo dugu inolaz ere komertzialki erabili edo ustiatu isilpeko informazioa, Prozedurarekin erlazionatutako gauzetan salbu. Era berean, ezingo dugu eskatu gure aldeko jabetza intelektual edo industrialeko eskubiderik isilpeko informazioaren inguruan.

4.- Iraupena.- Idazki honetan hartutako konpromisoak lau (4) urtekoak izango dira, sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

5.- Isilpeko informazioa itzuli edo suntsitzea.- Idazki honen indarraldia amaitutakoan Dokumentazioa suntsitu egin beharko da ahalik eta lasterren, eta betiere indarraldia amaitu eta bost (5) lanegun igaro baino lehen.

6.- Aplikatzekoa den legeria eta jurisdikzioa.- Akordio hau Espainiako legeen azpian gauzatuko da. Alderdiek espresuki uko egiten diote aplikagarri izan daitekeen beste edozein foruri eta adosten dute akordio honen edota honekin zuzenean zein zeharka lotutako edozein konturen interpretaziotik edo exekuziotik eratorritako auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio guztiak Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean ebatziko direla.

Mesedez, bidaliezaguzue Dokumentazioa posta elektronikoko helbide honetara: xxx@xxx.net

[Enpresaren izena]

P.p.

D. [...]

(Kargua)